

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren 201/2018 Foru Agindua, uztailaren 9koa, Arabako Hiri Hondakinen 2017-2030 Prebentziorako eta Kudeaketarako Planaren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa egiten duena

Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren ohiko prozeduraren eraginpean izapidetu behar da "Arabako Hiri Hondakinen Prebentziorako eta Kudeaketarako Plana (2017-2030)" agiria, Ingurumen eta Hirigintza Sailak sustatzen duena. Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, arautzen du aipatutako prozedura; urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, berriz, plan eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen du.

Prozedura horren eremuan, 2018ko otsailaren 9an, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak Ingurumen Azterketa Estrategikoaren irismen agiria eman zuen, arestian aipatu dugun ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2018 Legearen 19. artikulua xedatzen duenari jarraiki. Agiria eman baino lehen, kontsulta egin zitzaion eragindako herri administrazioei, natura ikertzea eta zaintzea helburu duten elkarteei eta gainerako interesdunei, eta jasotako erantzunak Ingurumen Azterketa Estrategikoaren irismen agirian jaso eta txertatu ziren. Geroago, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitateko Zerbitzura helarazi zen agiria.

Ingurumen Kalitateko Zerbitzuak Ingurumen Adierazpen Estrategikoa egiteko eskatu dio Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari. Eskaera horrekin batera, agiri hauek jaso genituen sail honetan:

- Arabako Hiri Hondakinen 2017-2030 Prebentziorako eta Kudeaketarako Planaren azken proposamena.
- Plan horren Ingurumen Azterketa Estrategikoa (IAE).
- Jendaurreko informazioaren eta kontsulten emaitzak.
- Laburpen agiri bat. Bertan, sustatzaileak azaltzen du nola sartu diren ingurumen alderdiak, Ingurumen Azterketa Estrategikoa eta haren irismen agirirako egokitzapena eta egindako kontsulten emaitzak planaren azken proposamenean eta nola hartu diren haiek aintzat.

Ingurumen adierazpen estrategiko honek oinarri hartzen du Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak egindako txosten teknikoa (2018ko uztailaren 5koa), betiere 21/2013 Legeak 25. artikuluan ezarritakoari lotuta.

Ingurumen Adierazpen Estrategiko honetan jasotzen diren zehaztapenak, 21/2013 Legearen 26. artikuluan adierazten denez, "Arabako Hiri Hondakinen Prebentziorako eta Kudeaketarako Plana (2017-2030)" agirian sartu beharko dira.

1. Planaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertu diren kokaleku posibleak

1.1. Planaren ezaugarri orokorrak.

"Arabako Hiri Hondakinen Prebentziorako eta Kudeaketarako Plana (2017-2030)" lege aginduz idazten da. Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 3/1998 Lege Orokorrak, 74. artikuluan, xedatzen duenez, lurralde historikoetako foru organoek garatuko dute euren lurraldeetan hiri hondakinen kudeaketaren esparru plangintza, dagozkien foru planen bidez.

Sustatzaileak azaltzen duenez, planaren helburua hiri hondakinen kudeaketak Arabako Lurralde Historikoan duen egoeraren analisi eguneratua egin eta, hura oinarri hartuta, era arrazoituan, 2017-2030 aldirako arlo horretan toki erakundeen jarduera publikoa zuzendu behar duen hiri hondakinen politikaren estrategia ezartzea da. Halaber, planaren helburua da hiri hondakinen prebentzioa, berrerabiltzeko prestaketa, birziklapena, balorizazioa eta ezabapena errazteko helburuak eta garatu beharreko neurriak ezartzea, baita hiri hondakinak bildu eta kudeatzeko udal jarduerak bete beharko dituzten orientabideak ere. Plana, haren helburuak eta neurriak lurraldez gaindiko (Europako, estatuko eta autonomiako) araudi eta plangintzaren, nahiz ingurumen araudi eta plangintza orokorraren eta klima aldaketaren aurka borrokatzearen arabera aurreikusi dira.

Plan honetan aurreikusitako jardueren artean, dagoen azpiegitura hobetzekoak, nahiz azpiegitura berria sortzea daude. Haren barruan, gaika bildutako biohondakinaren balorizaziorako konpostaje planta bat edo batzuk sortzea, eta bolumen handiko hondakinak desmuntatzeko planta bat eta zenbait garbigune/reutilizagune batzuk sortzea nabarmentzen dira.

Jardun eremuak lurraldeko zazpi kuadrillentzat (Añana, Aiara, Kanpezu-Arabako Mendialdea, Guardia-Arabako Errioxa, Arabako Lautada, Gasteiz eta Gorbeialdea) hondakinak kudeatzeko eredu bat definitzea eskatzen du.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak definitu du plana, lurraldeko zazpi kuadrillen eta Gasteizko Udalaren laguntzaz, eta lehenago parte hartzeko publikoko prozesu bat egin da, planaren 2. agirian deskribatzen dena.

Helburu hauek ezarri dira planarentzat:

Gobernamendu ona:

– Hiri hondakinak kudeatzeko eredia Arabako Lurralde Historikoan hobeto koordinatu eta txertatzea.

Hondakinen hierarkia:

– Prebentzio kuantitatiboa. 2030ean sortutako hiri hondakinen pisua ehuneko 15etik gora murriztea, 2016an sortutakoen pisuaren aldean.

– Prebentzio kualitatiboa. Inpropioen presentzia eta bananduta biltzen diren hiri hondakinen zatiki guztietako arriskugarritasuna etengabe eta pixkanaka murriztea.

– Berrerabiltzeko prestatzea. Berrerabiltzeko prestatzen diren hiri hondakinen zatikien ehuneko eta kopurua handitzea gutxienez 2020an pisuan ehuneko 2ra eta 2030ean pisuan ehuneko 5era iritsi arte, Arabako Lurralde Historikoan sortutako hiri hondakin guztietatik.

– Birziklatzeko prestatzea. Hiri hondakin guztiei aplikatzeko, birziklatzeko prestatzen diren hiri hondakinen kantitateak handitzea, halako moldez non berrerabili eta birziklatzeko prestatutako guztiaren ehuneko gutxienez, 2020an, pisuan ehuneko 50era, 2025ean, pisuan ehuneko 55era eta 2030ean, pisuan ehuneko 60ra iristen baita, Arabako Lurralde Historikoan sortutako hiri hondakin guztietatik. Halaber, berariazko helburuak ezartzen dira hiri hondakinak osatzen dituzten zatiki nagusientzat.

– Beste balorizazio mota bat. Birziklatzeaz besteko balorizazio tratamenduak dauzkaten hiri hondakinen ehunekoari pisuan ehuneko 15eko atalasearen azpitik eustea, Arabako Lurralde Historikoan sortutako hiri hondakin guztietatik.

– Ezabapen segurua. 2020an, zabortegean utzitako udal hondakinen kantitatea ehuneko sortutako udal hondakinen guztizko kantitatearen 35era murriztea, edo ehuneko txikiago batera, eta 2030ean ehuneko hori ehuneko 15eko atalasearen azpitik murriztea.

Jasangarritasuna:

– Jasangarritasun ekonomikoa. Arabako Lurralde Historikoko hiri hondakinen kudeaketa sistemaren jasangarritasun ekonomikoa ziurtatzea, sarrerek gastuak erabat estaltzeko mailara iritsiz.

– Ingurumen jasangarritasuna. Arabako Lurralde Historikoko hiri hondakinak kudeatzeko sistemaren ingurumen eta osasunaren gaineko inpaktua murriztea.

– Gizarte jasangarritasuna. Txirotasunaren eta bazterkeriaren kontra borrokatzen, enplegu berdea sortzen eta elikadura xahuketa murrizten laguntzea.

Helburu horiek betetzeko dira Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planak jasotzen dituen 80 ekintzak.

Gainera, erabat hartzen dira EAEren eremuan hondakin mota ororen plangintzari aplikatu behar zaizkion ingurumen helburu estrategikoei eta jasangarritasuneko printzipio eta irizpideei lotutako zehaztapenak. Helburu horiek Eusko Jaurlaritzako ingurumen organoak definitu ditu, EAEko hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko 2020 planaren ingurumen ebaluazio estrategikorako prozeduraren esparruan egindako erreferentziako agiriaren bidez.

1.2. Ingurumen ebaluazio estrategikoaren eremu geografikoa.

“Arabako Hiri Hondakinen Prebentziorako eta Kudeaketarako Plana (2017-2030)” agiriaren eremu geografikoa lurralde historiko osoa da, haren zazpi kuadrillak barne.

Arabako Lurralde Historikoak 3.037 km² betetzen ditu eta 325.000 biztanle dauzka. Lurraldeak biztanleen pilaketa handia dauka bere hiriburuan, Gasteizen, eta bertan bizi dira arabarren hiru laurdenak baino gehiago. Jarduera industrialak duten herri batzuk alde batera utzita, hala nola Audio, Amurrio, Agurain, Dulantzi, lurralde gehiena sakabanatutako herri txikiek osatzen dute, landatarrak eta populazio urrikoak haiek. Horrek nabarmen baldintzatzen du hondakinen arloko kudeaketaren plangintza.

Arabak ekologia eta paisaia kalitate handiko esparruak dauzka, naturgune babestuen edo izendatzeko izapideetan daudenen kopurutik eta azaleratik ondorioztatzen denez. Izan ere, lurraldean lau parke natural daude izendatuta, lau hezegune daude sartuta Nazioarteko garrantziko “Ramsar” hezeguneen zerrendan, biotopo babestu bat dago eta beste bat izendatzeko proposatuta eta haren azaleraren ehuneko 26,3 (80.000 hektarea inguru) “Natura 2000” Europako Sare Ekologikoan sartutako esparruei atxikita dago (Garrantzi Komunitarioko Tokiak -GKT-, kontserbazio bereziko eremuak –KBE- eta hegaztien babes bereziko eremuak –BBE-).

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoan “desagertzeko arriskuan” katalogatutako espezieen intereseko habitat ia guztiak daude Araban, Arabaren azaleraren eguneko 57 dago paisaia bikain edo berezi gisa kalifikatuta, Arabako Lurralde Historikoko paisaia berezi eta bikainen katalogoaren arabera (Diputatuen Kontseiluaren 2005eko irailaren 27ko 829 zenbakiko Erabakiaren bidez onartua) eta lurralde osoaren erdia baino zertxobait gehiago dago Onura Publikoko Mendi gisa katalogatuta, eta mendi horiek kontserbazio egoera oneko baso autoktonoek betetzen dituzte gehien bat.

Ingurumen intereseko eremuen arteko konektibitate ekologikoaren ikuspuntutik, eta oro har lurralde osoan, azpimarratu behar da Arabak erreka txikien sare trinko bat daukala, zeinek bat egiten baitute Ebroen arroko nahiz kantauriar arroko ibaietan, eta ibai eremu horiek arro mediterraneoaren kasuan bat datoz Natura 2000 Sareko naturgune babestuekin. Erreka txikien eta ibaien sare horrekin guztiarekin batera, zati askotan, galeriako baso autoktonoak (haltzadiak eta lizardiak) daude, zeinak Europako 92/43/EEE Zuzentarauak, habitat naturalen eta basa fauna eta floraren kontserbazioari buruzkoak, interes komunitario eta interes lehenetsiko gisa katalogatzen baititu. Arabako Lurralde Historikoan Sare Ekologiko Funtzionalak Konektore Ekologikoen Sare bat gehitzen dio naturgune babestuen egungo sistemari. Konektore ekologiko horiek eremu horien jarraitutasun ekologikoa eta epe ertain eta luzean dibertsitate biologikoari

eustea ziurtatzen dute. Penintsula eta Europa mailan, nabarmendu behar da Arabak mendigune handi bi, Pirinioak eta Kantauriar mendikatea, lotzeko duen funtsezko eginkizuna. Sistema natural horietan daude penintsularen iparraldeko biodibertsitate erreberba leku nagusiak eta, beraz, gure lurraldearen zati handi bat Kantauriko mendikatea – Pirinioak – Frantziako erdialdeko mendigunea – mendebaldeko Alpeak konektibitate ekologikoko ekimenaren eremuan dago bilduta, zeina Naturaren Kontserbaziorako Nazioarteko Erakundeak (IUCN) sustatzen baitu. Arabako Foru Aldundiak formalki atxiki zitzaion haren konpromisoan adierazpenari, Diputatuen Kontseiluaren 2006ko urriaren 24ko 920 zenbakiko Erabakiaren bidez.

1.3. Aztertu diren kokaleku posibleak.

Planean eta haren ingurumen ebaluazioko prozesuan aukerak aztertu dira bost alderdi hauei dagokienez: plan berri baten onarpenaren justifikazioari dagokionez, gobernamentu eredu txertatzeari dagokionez, gaika bildutako biohondakinaren balorizazioari dagokionez, TMBko plantako errefusaren eta bioegonkortuaren balorizazioari dagokionez eta azkenik masako hondakin bilketa ereduari eta gaikako bilketari dagokionez.

Orain arte egindako planteamendua zuzentzat jotzen da, baita hautatutako irtenbideak ere, ingurumenaren hobekuntzaren ikuspuntutik. Sustatzaileak argudiatzen duenez, irtenbideak bat datoz Europar Batasunaren mailan arau bidez ezarritako zorrotasun mailarik handienekin. Ingurumen Azterketa Estrategikoan hartutako aukeren arrazoiketan sakondu da.

Hemen egindako aukeren analisia laburbiltzen da:

Plan berri bat onartzearen justifikazioari buruz:

Alde batetik “0 egoera” edo ez esku hartzeko egoera eta plana hurrengo urteetarako espero den errealitate berriarekin arabera berrikusteko aukera aztertu dira, azken urteotan onartutako araudiak betetzen direlakoan.

“0 egoera” baztertzen da, ez baitu betetzen indarreko araudia eta ingurumen arazoak ekarriko litzukeelako. Arauen eskakizunak zorrozki betetzea eta betetze hori ziurtatzeko azpiegiturak egokitzea pentsatzen da.

Gobernamendu eredu txertatzeari buruz:

Hiru formula aztertu dira: alderdien arteko lankidetzaren hitzarmenak aurreikustea, lurralde historiko osorako plangintza eta kudeaketa baturako partzuergo bat sortzea, eta hirugarrenik tokiko sozietate publiko bat eratzea.

Partzuergoaren formulari iritzi zaio egokiena erakunde eredu koherenteagoa eratzean. Eus-kadiko Toki Erakunde berrizko 2/2016 Legeak, 10. artikuluan, udalerriek euren burua antolatzeko eskumenaren esparruan, zerbitzu publikoak partzuergoaren bidez emateko elkarte formulak borondatez adosteko lehentasuna zehazten du, subsidiarotasun, hurbiltasun eta tokiko autonomia printzipioak bermatuz. Legean figura hori formula lehenetsia da derrigorezko gutxienezko udal zerbitzuen kudeaketa partekaturako, hala nola hondakin bilketa eta tratamenduarena, eman beharreko zerbitzuaren benetako kostuak eta kalitate estandarrak hobetzeko erakundearen irtenbide gisa.

Sustatzaileak argudiatzen du zerbitzuaren efizientzia eta kalitatea hobetzeak zuzenean ekarriko duela baliabideen erabilera ez eraginkorrek sortutako ingurumen inpaktuen murrizketa.

“Lankidetzaren hitzarmenak” ezartzean oinarritutako egungo formula baztertu egin da, konstantzia juridiko urria duelako, modeloaren integrazioari eta efizientziari egonkortasun urria ematen dielako eta aldaketak behar direlako etengabe, errealitate berrietara egokitzeko.

Tokiko sozietate publikoa ibilbide urrikotzat jotzen da, toki entitateko kontzepziorik ez daukan heinean eta, beraz, legeak toki erakunde berrizko aitortutako eskumen publikoak bere gain hartzeko aukerarik ez daukalako. Horrek nabarmen mugatuko litzuke koordinatuta jarduteko, efizientziarako eta eman beharreko zerbitzua hobetzeko aukerak.

Gaika bildutako biohondakinaren balorizazioari buruz:

Tratatzeke teknologiaren premisei dagokienez, oinarrizko aukera tekniko bi daude zatiki horiek tratatzeko: konpostajea eta digestio anaerobioa. Konpostajea hautatu da, bigarren aukerak gutxieneko masa kritiko bat behar duelako inbertsio bat justifikatu eta errentagarri bihurtzeko eta Araban masa kritiko horretara iristen ez delako.

Konpostajea gaika bildutako biohondakina balorizatzeko teknologia gisa hautatuta, kalkulatu da kontuan hartu behar den eskualdeko planten gutxieneko ahalmena urteko 1.500 tona ingurukoa dela. Atalase hori gutxieneko ingurumen bermeak ziurtatzeko eta prozesuen kontrol operazionalerako irizpideetan oinarrituta ezartzen da. Horiek bermatzen dute, era berean, plantak hondakinei buruzko egungo araudiaren eta ongarriei buruzko egungo araudiaren esparruan baimendu ahalko direla.

Urteko 1.500 teonako atalasea kalkulatzeko, bestalde, kontuan hartzen da instalazioak konpostaje sistema itxietan oinarritu behar direla, a priori, horiek baino ez baitituzte bermatzen biohondakinaren higienizazio egokia eta prozesuko isuri, usain eta lixibiatuen harpen, kontrol eta tratamendu nahikoa, ingurumen inpaktuak eta biztanleentzako eragozpenak prebenitzeko.

2030an ehuneko 60ko birziklatze ehunekoari dagokion egoerarik baikorra hartuta, ikusten da Gasteizen eta Aiarako Kuadrillan baino ez litzatekeela gaindituko urteko 1.500 tonako atalasea. Gasteizen ingurunean azpiegitura bat ezarri behar da aztertutako edozein egoeratan, baina Aiarako Kuadrillan bertako materia organikoaren gaikako bilketaren ezarpenaren jarraipenaren emaitzen mende geratuko da, bai arlo kuantitatiboan bai kualitatiboan, eta ekotzitako konpostarentzako tokiko merkatu bat egotearen mende. Gainerako kuadrilletan ez da justifikatzen planta bat eraikitzea eta materia organikoaren tratamendua Gasteiz inguruan proposatutako plantan pentsatzen da. Aiarako Kuadrillan gaika bildutako biohondakinak ere eramango dira planta horretara eskualde horretan planta bat eraikitzeke gutxienekoetara iristen ez bada.

Nolanahi ere, zabalik geratzen da urteko 1.500 tonatik beherako ahalmena duten udal edo eskualdeko planak sustatzeko aukera, sistema itxietako konpostajeaz besteko teknologietan oinarrituta, hori dena hurrengo urteetan haien osasun, ingurumen, lege, ekonomia eta gizarte bideragarritasuna frogatzen bada, eta ekotzitako konpostari irteera emateko tokiko merkatu nahikoa badago. Planaren esparruan, teknologia horien azterketa egiteko bitartekoak jarriko dira.

TMBko plantako errefusaren eta bioegonkortuaren balorizazioari buruz:

Zuhurtasun printzipioa aplikatuz, Jundizko TMBko plantako errefusa eta bioegonkortu zatikiak balorizatzeko sustatu beharreko tratamenduari edo tratamenduei buruzko erabakia aplikatzeko balizko teknologiei buruzko iritzia izateko behar beste elementu daudenean eta Arabako Lurralde Historikoan materia organikoaren gaikako bilketa orokortua ezartzearen ondorioz korrante horien kantitatearen eta osaketaren bilakaera ezagutzen denean hartuko da.

Nolanahi ere, eta egun dagoen informazioan oinarrituta, errefusaren balorizaziorako balorizazio energetikoa hartu da kontuan. Bioegonkortuaren balorizaziorako hauek hartu dira kontuan: teknozoruen fabrikazioa, lehengai gisa erabiltzea ongarririk formulatzeko, balorizazio energetikoa, ko-konpostajea arriskurik gabeko biohondakinen zenbait zatikirekin, etab.

Bitartean, planaren esparruan, ekintzak sustatuko dira aukeren bideragarritasunari buruzko ezagueran sakontzen jarraitzeko, a priori, aukera zehatzik baztertu ez hobetsi gabe. Nolanahi ere, eta planak kostu eredu eta aurrekontu jakin bat jasotzen duenez, hipotesi gisa bioegonkortua eta errefusa CSR/CDR (hondakin erregaia edo berreskuratutako solidoa) bihurtzeko aukera aztertu da, egungo araudiaren esparruan ziurgabetasunik txikiena duen aukera delako.

Masako hondakinen bilketa ereduari eta gaikako bilketei buruz:

1. irtenbidean egungo ereduak mantentzen dira, bide publikoko puntu askotan jarritako edukiontzi irekietan oinarrituak, gainerakoa zatikiaren edukiontzia nagusi dela. 2. irtenbidea eredu berritzaileagoetaranzko aldaketa edo bilakaera batean oinarrituko litzateke.

Egungo bilketa eredu jarritako ahalmen handian eta gainerakoa zatikia biltzeko bitartekoe-tarako irisgarritasun ia mugagabea oinarritzen da, eta harekin nekez gaintu ahalko da birzi-klaturako ehuneko 30aren muga. Beraz, beste eredu berritzaileagoetarantzko bilakaera hautatzen da. Besteak beste, giltzadun edukiontzi itxien sistema, txipadun edukiontziak, kendu eta jartzeko edukiontziak, atez atekoa, etab. izan litezke. Uste da eredu berri horiek era erabakigarrian lagun dezaketela plan honen prebentzio eta birziklapeneko helburuak lortzen.

2. Ebaluazio prozesuaren analisia

2.1. Ingurumen Azterketa Estrategikoaren balorazioa: kalitatea eta ondorioak.

IAEren edukia aztertuta, ingurumen organoaren ustez agiri horrek, oro har eta egiturari dagokionez, kalitate egokia dauka "Arabako Hiri Hondakinen Prebentziorako eta Kudeaketa-rako Plana (2017-2030)" agiriaren Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa gauzatzeko. Kaltetutako eremuaren ingurumen analisi, diagnostiko eta balorazio berbera egin da, baita eraginaren iden-tifikazioa eta balorazioa eta ingurumen integraziorako neurrien proposamena ere, eta planaren ondorioak berrikusteko programa bat jasotzen da. Nolanahi ere, aurreragoko ataletan, arreta bereziz eta banaka aztertu behar diren alderdiak eta/edo gaiak jorratuko dira, zenbait kasutan, berrikusi beharko liratekeenak.

3. Irismen agirian eta egindako kontsulten emaitzetan ezarritako eskakizunen gaineko gogoetak

3.1. Irismen agirian ezarritako eskakizunak.

Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak 2018ko otsailaren 9an egindako IAEren irismen agirian hondakinak bildu eta tratatzeko azpiegiturak ingurumenean eta paisaian integratzean kontuan hartu beharreko ingurumen alderdi batzuk definitzen ziren zeinak, beraz, IAEren berrikusi behar baitziren. Honako tauletan aztertzen dira aipatutako alderdiak.

INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAK ETA, AZKEN BURUAN, PLANAK ARRETA BEREZIAZ JORRATU BEHARREKO EREMUAK, INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMEN AGIRIARI JARRAIKIZ	PLANEAN ESKAKIZUN GISA SARTZEKO PROPOSATUTAKO EREMU ARAZOTSUEN BERARIAZKO BALDINTZAK
Aukera bakoitzaren justifikazioa	
(Irismen agiriaren hitzez hitzeko kopia): "Ingurumen Azterketa Estrategikoa, Hasierako Agiri Estrategikoa azaldutakoari dagokionez, hartutako aukerak eta ekintzak gehiago justifikatu beharko ditu, planean bertan aipatu eta zailtasun ekonomiko edo teknologikoengatik, nahiz ezarritako ingurumen helburuen betetzea moteldu edo handik desbideratzeagatik ezetsi diren beste aukera batzuen aurrean."	IAE, 1.3. Aztertutako aukerak: "Hauek izan dira planean aztertutako aukera multzo nagusiak: <ul style="list-style-type: none"> • Zero aukera edo ez esku hartzekoa versus Europako helburuak betetzeko aukera. • Gobernamentu eredu txertatzeko aukerak. • Gaika bildutako biohondakina tratatzeko aukerak. • TMB plantak sortutako errefusa eta bioegonkortua balorizatzeako aukerak. • Masako hondakinen bilketa eredu eta gaikako bilketei buruzko aukerak. Irismen agirian jasotako kontsiderazioak baietsi dira.
Lehenagoko kontsulten emaitza	
(Irismeneko agiriaren hitzez hitzeko kopia): "IAEren agirian ingurumen ebaluazio prozedurako "kontsulta" fasean adierazitako alegazio eta gogoetei erantzun arazoitu eman beharko zaie".	IAE, 2. eranskina. Lehenagoko kontsulten emaitza eta erantzuna ekarpenei: Atal honetan irismen agirian jasotako gogoetak era egokian eta xehean kontuan hartu direla uste da.
Planaren ingurumen inpaktuak	
(Irismeneko agiriaren hitzez hitzeko kopia): "Plan honetan aurreikusitako jardueren barruan, hondakinak bildu eta tratatzeko azpiegituren hobekuntza eta azpiegitura berria sortzea guztiz beharrezkotzat jotzen dira helburuak betetzeko eta, beraz, ingurumen ondorio global onuragarria izango dutela uste da. Nolanahi ere, azpiegitura fisiko horien ezaugarri fisiko, hautatutako kokalekuen eta ingurumenean eta paisaian integratzeko hartutako neurrien arabera, inpaktu garrantzitsuak sor litezke ingurumenean eta kasu jakinetan eragozpenak biztanleei, Ingurumen Azterketa Estrategikoa aztertu beharko dituenak."	IAE, 3. Planaren ingurumen inpaktuei buruzko informazioa: Atal honetan irismen agirian jasotako gogoetak era egokian eta xehean kontuan hartu direla uste da.

INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAK ETA, AZKEN BURUAN, PLANAK ARRETA BEREZIAZ JORRATU BEHARREKO EREMUAK, INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMEN AGIRIARI JARRAIKIZ	PLANEAN ESKAKIZUN GISA SARTZEKO PROPOSATUTAKO EREMU ARAZOTSUEN BERARIAZKO BALDINTZAK
(Irismeneko agiriaren hitzez hitzeko kopia): "Inpaktuen balorazioan eta babestu eta zuzentzeko neurriak zehaztean, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak bere alegazioan adierazi duenez, zeharkako inpaktuak ere hartuko dira kontuan, bereziki ingurumen sentikortasuneko eremuen gainekoak. Horretarako agiri kartografikoak aurkeztuko dira dauden jarduera guztien kokapenarekin eta, ahal den neurrian, aurreikusitako instalazioak zehaztuta. Kartografia horretan ingurumen sentikortasuneko eremuen arabera kokapena islatuko da: katalogatutako naturgune babestuak, katalogatutako paisaiak, sare hidrografikoa, landaretza autoktonoaren eremuak, etab., eta ondore horietarako arazo handiagoak izan litzaketen instalazioak adieraziko dira."	IAE, 3.2.1.6. Natura 2000 tokien eta beste eremu sentikor batzuen gaineko eragina eta 4. eranskina, planoak: Atal honetan irismen agirian jasotako gogoetak era egokian eta xehean kontuan hartu direla uste da.
Hondakinak bildu eta tratatzeko azpiegiturak ingurumenean eta paisaian integratzea	
(Irismen agiria): Irismen agirian zenbait gidalerro ematen dira plana gauzatzearen ondoriozko ingurumen ondorioak minimizatzeko egokitzat jotzen diren ingurumenean integrazteko neurri guztiak era egokian kontuan hartzeko. Zehazki irismen agirian egiten den neurri orokorren laburpena eta hitzez hitz hemen jasotzen den paragrafoa azpimarratu behar dira: "Horri dagokionez, babesteko eta integrazteko irizpideak ezarriko dira sare hidrografikotik gertuko eremuetan, berezi eta/edo bikain katalogatutako paisaietan, landaretza naturalak estalitako guneeetan, babestutako esparruetatik gertuko eremuetan, biziguneetatik gertuko guneeetan eta hala azpiegitura tipologiaren eta kokalekuen kasuistiken arabera".	IAE, 5. Ingurumenean integrazteko neurriak: Atal honetan irismen agirian jasotako gogoetak hitzez hitz eta zorrotzasunez kontuan hartu direla uste da. Planak berak jasotzen du IAE planaren barruan dagoela 3. agiri gisa. Egokitzat jotzen da Ingurumen Azterketa Estrategikoko ingurumenean integrazteko neurriak, nahiz neurri horiek gauzatzeko erantzukizunak, kostu ekonomikoa eta denborako plangintzan hitzez hitz sartzea planari berari buruzko 1. agirian.
(Irismeneko agiriaren hitzez hitzeko kopia): "Babesteko eta ingurumen inpaktua zuzentzeko neurrien aurrekontua egin eta hura planaren aurrekontuan sartu beharko da, azpiegitura berrietako eta lehendik daudenetako inbertsioen atalean".	IAE, 5.2.6. Neurriak egiteko erantzukizunak, kostu ekonomikoa eta denborako plangintza: Hau esaten da hitzez hitz: "ingurumenean integrazteko neurri horien aurrekontua sartuta dago aplikatu behar zaien ekintzen aurrekontuan. Kostu hori kalkulatzeko ehuneko 5etik ehuneko 10era bitarteko faktore inkremental aldakor bat aplikatuz egin da, kasuaren arabera, obraren kostuaren kalkuluari dagokionez, ingurumenean integrazteko neurriak aplikatu gabe".
Planaren ondorio diren proiektuak, Ingurumen Inpaktuen Ebaluazioaren pekoak	
(Irismeneko agiriaren hitzez hitzeko kopia): "Ingurumen Azterketa Estrategikoak plana gauzatu eta garatzearen ondorio izan daitezkeen jarduera edo proiektuak adierazi behar ditu, Ingurumen Inpaktuen Ebaluazioaren pean daudena, ohiko modalitatean nahiz erraztuan."	IAE, 1.4. Aurreikusitako planaren garapena: Atal honetan irismen agirian jasotako gogoetak kontuan hartzen saiatu dela uste da. Arestikoa gorabehera, eta egun estatuko nahiz autonomiako ingurumen ebaluazioari buruzko araudia berrikusteko fasean dagoela kontuan hartuz, egokiagozat jotzen da IAEren atal hori aldatzea eta bertan berriz idaztea plana gauzatzearen ondoriozko zenbait proiektu ingurumen inpaktuen ebaluazioaren pean egongo direla aurreikusten dela. Nolanahi ere, IAE eta planean bertan jasoko da berariaz aurretik behar besteko epearekin egingo zaizkiola banakako kontsultak ingurumen organoari, plana aplikatzearen ondoriozko proiektu bakoitza ingurumen inpaktuen ebaluazioaren pean daudenetz bereizteko eta, hala badaude, prozedura erraztuaren ala ohikoaren pean dauden.
Planaren jarraipena eta ebaluazioa	
(Irismeneko agiriaren hitzez hitzeko kopia): "Ingurumen Azterketa Estrategikoak planaren garapenak eragindako obran edo jardueren gauzapenean ezarritako neurriak zuzen hartzea betetzen dela kontrolatzeko neurriak jaso beharko ditu. Esan beharko da zein alderdiren analisi xehea eta ingurumen jarraipena atzeratu beharko diren proiektuaren aurreragoko faseetara eta prozedura horren pean dauden jardueren proiektuen inpaktuen ebaluaziora. Plana pixkanaka abiarazteak dakartzan ingurumen inpaktu esanguratsu bakarrak Ingurumen Ebaluazio Estrategikoan aurreikusi eta kontuan hartutakoak direla egiaztatzekeo neurriak ezarriko dira, behar izanez gero hasieran pentsatutakoei gehitutako neurriak aurreikusiz. Halaber, planak berak, bere etorkizunean aurrera egindakoan, neurri eta kontrolerako parametro berriak eta adierazle berriak sartzea ahalbidetzen duten mekanismoak aurreikusi beharko ditu."	Ingurumen Azterketa Estrategikoa, 6. Ingurumen Zaintzako Programa eta planaren beraren 1. agiri 3. eranskina: Atal hauetan irismen agirian jasotako gogoetak era egokian kontuan hartu direla uste da.

3.2. Egindako kontsulten emaitza.

Lehenik eta behin, IAEren irismen agiria prestatzeko egindako kontsulta faseari dagokionez, agiri horretan aztertzen ziren fase horretan jasotako alegazioak eta, era berean, horien berri ematen zitzairen planaren sustatzaileari. Administrazio desberdinetako alegazioak jaso ziren:

- URA Uraren Euskal Agentzia:
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Arabako Natur Institutua (IAN-ANI).
- Ekologistak Martxan Araba.
- Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea (GADEN).
- Eguzki talde ekologista.
- Hontza Natura Elkartea.
- Gaia Elkartea.
- Gasteiz Zero Zabor.
- Ama-Lur Ekialdea Elkartea Naturalista.
- Asparreneko Udala.
- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua.
- Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua.
- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza.

Alegazio horiek Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak prestatutako IAEren irismen agirian laburtuak izan ziren, 2018ko otsailaren 9an (www.araba.eus).

Irismen agiria bidali ondoren, 2018ko otsailaren 20an, kontsulta faserako ezarritako epetik kanpo, URA Uraren Euskal Agentziaren alegazio txosten bat jaso zen. Zenbait gogoeta egiten ziren bertan, hauei buruz:

- Jabari publiko hidraulikoa (JPH) eta haren eremu babestuak.
- Uholde arriskua.
- Plan Hidrologikoetako eremu babestuen erregistroan jasotako hiri hornidurarako ur harpenak.
- Hornidura eta saneamendua.

Bigarrenik, arloko txostenak bildu eta IAE eta plana jendaurreko informazioaren pean jartzen diren faseari dagokionez, jasotako alegazioen laburpen bat jasotzen da hemen. Plana idatzi duen taldeak banaka azertu eta ebatzi ditu haiek, aldaketa batzuk onetsiz eta planean bertan sartuz.

• Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak dioenez, “agiri teknikoa aztertuta, zehazki 2018ko otsaileko planaren proiektua eta data bereko Ingurumen Azterketa Estrategikoa, ikusten da bigarren agirian Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzu honek 2018ko urtarrilaren 17ko txostenean egindako oharra jaso direla; komeni litzateke berri esatea, ordea, planaren proiektuan oraindik esaten dela hau: “Euskal Kultura Ondarearen ondasun gisa kalifikatu edo inbentariatutako monumentuak, monumentu multzoak eta kultura espazioak dauden esparruak edo eremuak saihestuko dira;” baina ez dira horiek balizko eragin batzuetatik babestu behar diren legez babestutako ondasun mota bakarra; hirigintza eremutik, katalogoaren figuraren pean bilduta, babestuta dauden ondasunak ere babestu behar dira. Aurreko txostenean adierazienez, hondakinen kudeaketari lotutako proiektuak izapidetzeko unean jakinaraziko da era egokian Arabako lurraldeko kultura ondare arkitektonikoan egon daitekeen eragina”

• Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak lehenik dioenez, Ingurumen Azterketa Estrategikoak era egokian jasotzen ditu Nekazaritza Zuzendaritzak Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren prozedurako kontsulta fasean egindako txostenean plan honetatik datozen tratamendu planta berrien kokalekua hautatzeko uneko irizpideei buruz adierazi zituen zenbait kontu, hori guztia nekazaritza lurzorua zaintzeko helburuz, bereziki nekazaritza balio handikoa, baita landa bideak eta beste landa azpiegitura batzuk ere. Bestalde, Gasteizen eraikiko den konpostaje planta zentralizatuan gaika bildutako biohondakinaren balorizazioari dagokionez, hau diote: “nekazaritzak funtsezko eginkizuna izan dezake produktu horren balorizazioan; izan ere, konpostaren aplikazioak lurzoruen emankortasuna hobetzen eta haren ezaugarriak hobetzen lagun dezake.” Azkenik, hau esaten da: “konpostaje plantak era egokian kudeatu beharko dira, uneoro kalitatezko produktua lortzen dela bermatuz, beste medeapen organiko eta ongarri mineral batzuk ordeztu ditzakeena, hondakinen eta lurzoru kutsatuen legeak xedatzen duen bezala”

• Hontza Natura Elkartek eta beste elkarte ekologista batzuek (Amalur-Ekialdea, Eguzkizaleak, Ekologistak Martxan, Gaden, Gasteiz Zero Zabor, Gaia Talde Ekologista eta IAN-ANI) hamar gai aipatu dituzte guztira, ondoren aipatzen direnak, eta ondorioztatu dute alegazio horiek kontuan hartu behar direla eta Arabako hiri hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko 2017-2030 planaren proiektuaren proposamena atzera bota behar dela:

1. Herritarren parte hartzerik eza.
2. Planean islatutako hiri hondakinen ezaugarrien eta osaketaren taulek ez dute adierazten egungo egoera.
3. Adierazten da planean datu objektiboak, egiazkoak eta frogatuak eman behar direla, eta esaten da 6.3.4. puntuko datuak (2016ko biohondakinak birziklatzeko “Korronte lehenetsiak”) ehuneko 2,66 direla eta ez ehuneko 4, planean esaten den bezala.
4. Gardelegiko zaborteziaren urteko benetako kostua sartzeko eskatzen da, baita TMBrentzako eta Gardelegirentzako tratamendu tasak zehaztu eta definitzeko ere, legea betetzeko helburuz.
5. Biohondakinaren balorizazioari buruzko azterketa xeheagoa eta errealistagoa egin beharra plana onartu ahal izateko.
6. Esaten da planak ahalik eta ziurgabetasunik txikienaz jaso behar duela berrerabiliak eta birziklatuak izan daitezkeen material guzti-guztien gaikako bilketaren eta berariazko tratamenduaren aldeko jarrera, ateratako errefus eta bioegonkortu kantitatea ahal den guztia murrizteko.
7. 2016a erreferentziako oinarritzako urte gisa ezartzeko eskatzen da, planeko 31 figurako kalkuluak egiteko.
8. Helburuak Europar Parlamentuaren 2018ko apirileko azken erabakiaren arabera eguneratu beharra; gainera, beharrezkoa da helburu estrategikoetako batzuk birpentsatzea, eta adierazle berriak eta adierazleen xede balioak definitzea, plana betetzeko bermekin onartu ahal izateko. Planaren eraginkortasuna ikuskatu beharra.
9. Planaren ekintza programako ekintza batzuk aldatzeko eskatzen da.
10. Koherente eta beharrezkotzat jotzen da gaikako bilketan hobekuntzak ezartzeko plangintza egiteko aurrekontua handitzea, eta gaika biltzeko ahalmena izanda, behar diren azpiegiturak eraikitzea.
11. Arabako Foru aldundiak dauka plana egiteko erantzukizuna eta, beraz, berarena izango da lortutako emaitzen erantzukizuna ere. Beharrezkoa da planak zenbait formula jasotzea planean programatutako ekintza guztien finantzaketa eta gauzapena bermatzeko.

• Positiboki baloratzen diren planaren zenbait alderdi azpimarratu ondoren, lau alegazio egin ditu guztira Ecoembesek, hemen aipatzen direnak:

1. Positiboki baloratzen da Arabako hondakinen ezaugarriak eta osaketa zehatzago ezagutzeko plan bat egitea. Hiri hondakinen osaketari buruzko ohar eta ekarpen batzuk egiten dira.

2. Ecoembesi lotutakoez gain dauden kanpainei dagokienez, gainerakoa zatikian dauden ontzien osaketaren ehunekoei buruzko daturik ez ematea proposatzen da, estatistikoki adierazgarriak diren ezaugarriak zehaztuta ez dauden bitartean.

3. Ontzien arloko helburuak 2025 eta 2030erako orientagarriak direla, eta Europa mailan ezartzen denera doitzeko berrikusiko direla berariaz esatea iradokitzen da.

4. Ekoizlearen Erantzukizun Zabalduko Sistema Kolektiboek egindako ekarpen ekonomikoek estatuko legediak xedatutakoarekin lerrokatuta egon behar dute.

• EH Bildu – Batzar Nagusiak, EH Bildu Urkabustaiz eta EH Bildu Asparrena taldeek sei alegazio egin dituzte guztira:

1. Planaren gobernamentu atalean defendatutako tesiak “ekonomizista”tzat jotzen dira eta, beraz, ikaragarri zitalak dira eta Europako hondakinen kudeaketari buruzko legediak bilatzen dituen helburuen kontrako noranzkoan doaz. Gobernamentuari buruzko ekarpen zehatzak egiten dira.

2. Haien ustez, planak tratamenduko azpiegituretako gastua hobesten du haien prebentzio, berrerabiltze eta birziklatzeko beharrezko gastuen aurrean eta, beraz, euren desadostasuna adierazten dute. Horri buruzko ekintzak proposatzen dituzte.

3. Planean prebentzioa eta biohondakinen ekonomia zirkularra bultzatzen dituzten kudeaketa sistema deszentralizatuen aldeko jarrera argia (autokonpostajea, konpostaje komunitarioa eta austriar eredu) jasotzea proposatzen da; nabarmen murriztuko luke horrek sortutako hondakinen masa.

4. Aldundiak ontziak sailkatzeko planta zuzenean kudeatzea proposatzen da zeinak, plantaren efizientzia handiagoa eta funtzionamentu hobea ziurtatzeaz gain, planta osoko estrategia batean txertatuko bailuke, Europako hondakinen hierarkiarekin bat etorri.

5. Jundizko TMB planta optimizatzeari begira, zeinak gehiegizko dimentsioa duela uste baita, irmotasunez egin behar da jatorriko bilketa zuzenaren alde, errefus eta bioegonkortu kantitatea murriztu ahal izateko.

6. Planaren betetze mailari eta gauzapearen ebaluazioari buruzko auditoretza, parte hartze eta eztabaida foro irekiak sortzea proposatzen da.

• Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak ohar bakarra egin du:

1. “Ikusita bidalitako planaren proiektuak ez duela hondakinak kudeatzeko azpiegiturak kokatzeko aukeren proposamen bat garatzen, zeina egin beharrekotzat jotzen baita, eta zalantza dagoenez, ea plana izapidetzeko ondorengo faseetan kontu horiek zehaztuko diren, hau baino ezin da esan:

2030HHPren bertsio aurreratuagoetan ildo horretako proposamen zehatzagoa badago, kokatzeko aukerak balioetsi eta egokiena hautatu ahalko da, balorazioan sor daitekeen natura ondarearen gaineko inpaktua kontuan hartuz.

Zehaztapan maila hori planean aurreikusitako jarduerak garatzen dituzten plan eta proiektuetara atzeratzen bada, plan eta proiektu horien ingurumen ebaluazioaren esparruan aztertuko da azpiegitura jakin bakoitzak natura ondarearen gainean duen inpaktua.”

• Kooperak zenbait alegazio egin ditu:

1. Planaren helburu estrategiko biren (4. eta 10. zenbakiak) idazketa aldatzea proposatzen da.

2. Arabako garbiguneen ereduari dagokionez, gizarte inklusioari begira ere jartzea proposatzen da.

3. Hiriko eta erdiririko garbigune finkoei dagokienez, berriak sortzeko eta garbigune horiei aplikatzeko arau eta araudi komuna sortzeko enpresen eta eragileen esperientzia kontuan hartzea proposatzen da.

4. Gizarte ekonomiako erakundeak sustatzea proposatzen da, "reutilizagunea"; konpostaje plantak eta bolumen handikoak guztiz desmuntatzeko planta kudeatzeko, eta planak azken planta horrentzat aurrekontu handiagoa izatea proposatzen da.

- Ecovidriok lehenik planaren alde positibo batzuk nabarmentzen ditu (hamabi guztira), eta ondoren zenbait alegazio egiten du:

1. Ekoizle handien atez ateko bilketaren atalaren idazketa eta edukien bereizketa eta seinaleztatzearena 11/1997 Legearen 9. artikuluan xedatutakoaren arabera doitzeko eskatzen da.

2. Merkataritza sektorearentzako prestakuntzan gaikako bilketarako edukiontziei buruzko informazioa sartzea proposatzen da.

3. Planaren proiektuan ontzien hondakinei buruzko helburuak Europa mailan ezartzen dena doitzeko berrikusiko direla berriaz esatea proposatzen da. Halaber, esaten da hondakinen autonomia plan batek ez daukala eskumenik helburu kuantitatiboak ezartzeko.

- Irabazi Podemos – Batzar Nagusiak taldeak zenbait alegazio egiten du:

1. Partzuergo ehuneko 100 publikorako formula bat proposatzen da, aniztasun politikoa islatuko duena eta herritarren parte hartzea ahalbidetuko duena. Halaber, planten kudeaketa proposatzen da, emakidak iraungi ahala.

2. Zenbait kontu proposatzen da: atez ateko bisitak egitea jatorriko bereizketa errazteko; nekazaritza finkek konpostajea egin ahal izatea erraztea; egungo plantak elikatzeko balorazio energetikoa mugatzea; lurraldean erraustegiak eraikitzeari uko egitea.

3. Gardelegiko zabortegeari dagokionez, isurketa tasan TMBren tratamendu tasarekiko koherentzia bat egoteko eta Lindanoaren arazoa jasotzeko eskatzen da.

- Ondoren, jendaurreko informazio fasea eta eragindako administrazio publikoei eta interresdunei arloko txostenak biltzeko kontsultak egiteko fasea amaituta eta, beraz, epez kanpo, URA Uraren Euskal Agentziaren alegazio txosten bat jaso da. Bertan, zenbait gogoeta egiten da Gardelegiko zabortegea bere ingurumen baimen integratuaren baldintzei egokitzeari, azpiegituren kokalekuak hautatzean kontuan hartu beharreko kontsiderazio hidraulikoei eta azpiegitura horien hornidura eta saneamenduari buruz.

4. Aurreikusitako eragin esanguratsuak eta ingurumen integratuzko neurriak aztertzea

Da "Arabako Hiri Hondakinen Prebentzioarako eta Kudeaketarako Plana (2017-2030)" agiritik datozen ondorio esanguratsuak IAEren 3. puntuan ("Planaren ingurumen inpaktuei buruzko informazioa") azaltzen dira. Oro har, planaren aplikazioak eragindako inpaktu esanguratsuen aurreikuspenaren analisisa era egokian pentsatu dela uste da.

Lehenik, planaren aplikazioaren ondorioz gauza daitezkeen proiektuen tipologiak kontuan hartu direlako, obra eta ustiapen fasean haiek sortutako inpaktuak kontuan hartuz. Planaren aplikazioaren ondorioz gauza litezkeen proiektuen eragina jasan lezaketen ingurumen alderdi batzuk aztertu dira:

- Ingurune fisikoa.
- Natura ondarea eta paisaia.
- Ingurune sozioekonomikoa.
- Giza ongizatea eta osasuna.
- Klima aldaketa.

- Kultural ondarea.
- Baliabide globalen eta tokikoen eskuragarritasuna.

Bigarrenik, ekintza planean jasotako ekintza guztiak banan-banan egiaztatu direlako eta haien ingurumen ondorio onuragarriak zein kaltegarriak baloratu direlako.

Azkenik, plana gauzatzeak Natura 2000 Sareari eta klima aldaketari eragin liezazkiekeen inpaktuak IAEn berariazko atal banatan baloratzen dira.

IAEn 5. puntuan jasotako ingurumenean integratzeko neurriak, egoki eta nahikotzat jotzen direnak, zenbait eremutan daude bananduta. Ingurumenean integratzeko neurrien zehaztapen nagusiak kopiatu dira hemen:

- Lehendik dauden ingurumen arazoak, Arabako Lurralde Historikoko hiri hondakinei lotutakoak, zuzentzeko funtsezko neurriak (3 neurri).

– 1. neurria: Gobernamentuaren eta neurri estrategikoen programako 13. ekintza / Kudeatzen eta erabakiak hartzen laguntzeko informazio eta ezaguera tresnen agenda: Azterketa integratu xehea egitea Arabako Lurralde Historiko osoan hiri hondakinen kudeaketaren ingurumen inpaktuak eta pasiboak arriskuaren arabera identifikatu eta hierarkizatzeke eta inpaktu kaltegarrien prebentzio, arintze, zuzentze eta konpentsatzeko lotutako kostuak kuantifikatzeko.

– 2. neurria: Gobernamentuaren eta neurri estrategikoen programako 28. ekintza / Ingurumen, gizarte eta lan jasagarritasuneko (enplegu berdea) agenda: Kontrolik gabeko isurketa guneen eta hondakindegien ixtea, zigilatzea eta ingurumen zaintza. Oro har, Arabako Lurralde Historikoko hiri hondakinen kudeaketa desegokiak eragindako ingurumen inpaktua prebenitu, arindu eta zuzentzeko jarduerak egitea.

– 3. neurria: Azpiegitura programako 47. ekintza / Dagoen azpiegitura hobetzeko agenda: Gardelegiko zabortegia bere ingurumen baimen integratuaren baldintzetara egokitzea.

- Plana garatzeko proiektuetarako funtsezko neurriak.

– Inpaktua prebenitzeko irizpideak aplikatzea tratamendu azpiegitura berriak ezartzeko (neurri 1).

4. NEURRIA: INSTALAZIO BERRIAK EZARTZEKO IRIZPIDEAK	
Irizpide orokorrak	<ul style="list-style-type: none"> — Dimentsionatzea. — Erabilgarri dauden teknikarik onenak aplikatzea. — Ingurumen balio adierazgarriak zaintzea. — Ingurumen arrisku berriak edo daudenak larriagotzea prebenitzea. — Naturaren, kulturaren edo ingurumen arriskuaren ikuspuntutik garrantzi txikia duten eremuak, hondakinak kudeatzeko instalazio jakin batzuk jasotzeko sustatu behar direnak, balioan jartzea, bideragarriak diren eta ingurumenarentzat ondorio kaltegarri gutxien duten plana garatzeko aukeren alde irmoago eginez.
Diseinatzeke eta dimentsionatzeko irizpideak	<ul style="list-style-type: none"> — Erabilgarri dauden teknikarik onenak kontuan hartzea, baldintza tekniko eta ekonomikoki bideragarrietan gutxien kutsatzen duten teknologiak hartuz halakotzat. — Prozesu teknologikoak hondakinen hierarkia betetzea. — EAEko egungo eskaria eta aurreikus daitekeena eta tratatu beharreko hondarrekorranteari lotutako egungo eta etorkizuneko legezko betebeharrak kontuan hartzea. — Aukerak erkatzeke ingurumen azterketetan, hauek dakartzaten instalazioak lehenetsiko dira: Balorizatzeke modu berriak, edo ezarritako balorizazio prozesuen dibertsifikazio handiagoa. Hobekuntza teknologikoa ezarrita dauden balorizazio prozesuen aldean. Instalatutako balorizazio ahalmena handitzea hondakinak kudeatzeko korronteentzat, zeinentzat ezarrita dauden instalazioak ez baitute estaltzen behar den ahalmena. Mugikortasun txikiagoa, analisi logistikoko baten bidez justifikatua.

4. NEURRIA: INSTALAZIO BERRIAK EZARTZEKO IRIZPIDEAK	
Kokatze irizpideak: a) hautatu beharreko eremuak	<p>Hauek izango dira hondakinen kudeaketari lotutako instalazio berrien kokaleku lehenetsiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> — Osorik edo partzialki instalazioaren aurreikuspenaren aurreko 2 urteetan (plan baten izapidetzearen hasiera edo proiektu bat baimentzeko eskaera) airearen kalitatea gutxienez ehuneko 90ean «0n» edo «0so on» gisa definituta dauzkaten udalerrietan kokatutako kokalekuak. — Berrerabili beharreko gizakiek oso aldatutako zoruak, lurzoru naturalak edo urbanizatu gabeko artifizialtzearen aurrean. — Uretarako isuriak dauzkaten instalazioak direnean, karga kutsatzaile handiagatik haien inpaktu handia izan ahal bada, haien kokapena isuri industrialak onartzen dituzten kolektore eta/edo HUAetatik gertu egotea sustatu eta lehenetsiko da.
Kokatze irizpideak: b) saihestu beharreko eremuak	<ul style="list-style-type: none"> — Babes araubide hauetakoren bat duten esparruak edo eremuak saihestea (ahal den neurrian eta babes araubide horiek debekatzen ez badute): Parke naturalak. Biotopo babestuak. Zuhaitz bereziak. Europako Natura 2000 Sarean sartutako eremuak edo tokiak. Euskal Herriko natura babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen arabera izapidetzen ari den Natura baliabideak antolatzeko plan batean jasotako eremu geografikoak. Euskadiko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planaren II. taldean sartutako hezegunekoak. LAAen interes naturalistiko areen zerrendan eta EAEko espazio natural garrantzitsuen katalogo irekian sartutako esparruak. Euren interes naturalistiko handiagatik lurralde plan partzialek babestutako eremuak. Euren interes naturalistiko handiagatik hirigintza araudiak babestutako eremuak. Espezie mehatxatuen Euskal Katalogoan «desagertzeko arriskuan», «babes berezia» edo «arraroa» edo «interes bereziko» kategorietan sartutako flora edo fauna mehatxatuko espezieak kudeatzeko planetan «interes bereziko gune» edo «banaketa naturaleko gune» gisa identifikatutako guneak. Mendebaldeko Kantauriko, Ekialdeko Kantauriko eta Ebroko Demarkazio Hidrografikoen Plan Hidrologikoetako Eremu Babestuen Erregistroko eremuak, baita erregistro horietako harpenen babes perimetroetan sartutako eremuak ere. Akuiferoak kutsatzeko arrisku handiko aldeak. 500 urteko birgertatze aldiko uholde arriskua duten eremuak. Nekazaritzaren eta Basogintzaren Arloko Lurralde Planeko Balio Estrategiko Handiko kategorian sartutako zoruak. Euskal Kultura Ondareko ondasun gisa kalifikatu edo inbentariatutako monumentuak, monumentu multzoak eta kultura esparruak. Ahal den neurrian, Balizko Arkeologia Guneak Finkatzeko Araudia ezartzen duen urriaren 8ko 234/1996 Dekretuaren esparruan zehaztu eta mugatutako balizko zona arkeologikoetan kokatzea ekiditea. Eremu horiek hondakinak kudeatzeko instalazio bat ezartzeko erabiltzea aurreikusten denean, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 49. artikuluan eta 234/1996 Dekretuan ezarritako babes araubidea bete beharko da.
Beste irizpide batzuk	Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde plan sektorialetan jasotakoak.

— Erosketa publiko ekologikoko irizpideak aplikatzea planaren aplikaziotik datozen obren eta zerbitzuen kontratazioan (3 neurri).

5. NEURRIA: EROSKETA PUBLIKO EKOLOGIKOKO APLIKAZIO LEHENETSIKO IRIZPIDEAK	
Bilketa zerbitzuei (planaren 36. eta 59. ekintzei aplikatu beharrekoa)	Kudeatzeko azpiegitura egokitu eta eraikitzeari (planaren 37., 42., 43., 47., 48., 51., 52. eta 75. ekintzei aplikatu beharrekoa)
<ul style="list-style-type: none"> — Bideen garbiketa eta hondakinen bilketa. — Ibilgailuak. 	<ul style="list-style-type: none"> Eraikuntza. — Urbanizatzeko obrak. — Barruko estaldurak. — Inguratzailea eraikitze obran. — Obra zibila. — Bulegoko materiala. — Material xurgatzailea. — Argiztapena. — Ekipamendu informatikoak, inprimagailuak. — Ekipamendu informatikoak, ordenagailuak. — Bulegoko altzariak. — Eraikinen garbiketa. — Ibilgailuak.

6. neurria: Neurri gehigarri gisa, agregakin birziklatuen erabilera maximizatuko da plana aplikatzean egindako obra mota orotan, agregakinak erabili behar badira. Horretarako, kontuan hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko herri lanetan agregakin birziklatuak erabiltzeko gidalerroen gidaliburua.

7. neurria: Azkenik, aukerako neurri osagarri gisa, eraikinaren jasangarritasunari dagokion jarduera bikain baterako, plana garatzean eraiki behar diren eraikin industrial berrietarako, gomendatzen da kontuan hartzea eraikuntzako jasangarritasuna ziurtatzeko sistemaren bati atxikitzeko aukera, dauden aukera guztien artean (BREEAM®, LEED®, VERDE®, etab.).

– Teknika erabilgarri onenak (TEO) (neurri 1).

8. neurria: TEO horiek "Hondakinak tratatzeko teknika erabilgarri onenen erreferentziako agiria (BREF)" delakoan daude definituta. Europako Batzordearen mendeko Joint Research Center-ek (JRC) egiten du agiri hori. Egun indarrean dagoen hondakinak tratatzeko Europako BREF hori 2006ko abuztuan argitaratu zen, baina egun berrikusten ari dira, argitaratu zenetik sektoreak izan duen bilakaera teknologiko handia dela eta. Ondorioz, atal hau egiteko egingo den BREF berriaren "Final Draft" ("Azken zirriborroa") bertsioa hartu da erreferentzia gisa, JRCK 2017ko urrian argitaratutako agiria. Ildo horretatik, IAEn 36. taulan planaren azpiegiturari aplikatu dakizkiekeen TEOak zehazten dira. Guztira 37TEO eta bidean dauden 3TEO (ebaluatzeko) nabarmentzen dira.

– Klima aldaketaren gaineko eragina arintzeko eta hari egokitzea ahalbidetzeko berariazko neurriak (neurri 2).

9. neurria (arintzeko neurriak):

- Bilketa zerbitzuetan ibilgailu eta erregai garbiak erabiltzea (planaren aplikazioaren ondoriozko obra eta zerbitzuen kontratazioan erosketak publiko ekologikoko irizpideak aplikatuz, agiri honetan adierazitakoak -5. neurria-).

- PAS 2060 araua eta/edo berotegi gasen isuriak borondatezko ekimenei atxikiz konpentsatzeko eskemak ezartzea.

10. neurria (egokitzeko neurriak):

- Alerta goiztiar eta prebentzioko ekintzako protokolo bat ezartzea, hiri hondakinen bilketa zerbitzu publikoen jarduera klima larrialdiko egoeretan arautzen duena, giza arriskuak eta kalteak eta arrisku eta kalte materialak prebenitzeko (elurra(izotza/euriak/uholdea/bero bolada, etab.).

– Aplikatzeko beste ingurumen neurri gehigarri batzuk (5 neurri).

11. neurria (lokalizazio irizpide gehigarriak azpiegiturak dimentsionatu eta kokatzeko hasierako fasean):

- Hondakinak kudeatzeko azpiegitura berriak eraikitzeke lurzoruen okupazio eta lur mugimendu garrantzitsuak behar direnean, ekidingo da jartzea parke natural, biotopo babestu, GKT, HBBE eta "Ramsar" hezegune, probintziako parke edo baso autoktonoen gune gisa katalogatutako eremuetan, baita katalogatutako habitatak edo mehatxupeko katalogatutako landare espezieak dituen eremu eta fauna interesagatik katalogatutako gune gisa katalogatutako eremuetan ere.

- Plan honen zehaztapenak betetzen dituzten proiektuak egiteko kokalekuak hautatzean, EAEko nekazaritza eta basozaintzako LAPEko lurzoruen erabilerean matrizea eta landa bideei buruzko 6/1995 Foru Arauaren eta Arabako Lurralde Historikoko ibilbide berdeei buruzko 1/2012 Foru Arauaren zehaztapenak kontuan hartuko dira.

- Nekazaritza produktibitate handiko lurzoruei eragitea saihesteko ahalegina egingo da, bereziki EAEko nekazaritza eta basozaintzako LAPEk balio estrategiko handiko gisa katalogatutako lurzoruei Kalitatezko laborantza eremuei eragiten zaienean, soberako landare lurrago inguruan andeatutako lurzoruek eta eremuak leheneratu eta hobetzeko erabiliko dira.

- Konpostaje planta sortu berriak kokatzeko, 2 kilometroko gutxieneko babes tarte bat ezartzea, instalazioak okupatutako lurzatiaren mugatik, eremu sentikor eta/edo etxebizitza ororen mugaraino. Segurtasun tarte hori kasu batzuetan murriz liteke, erakunde sustatzaileak justifikatzen badu azpiegiturak teknika erabilgarririk onenen eta aplikagarri diren ingurumenean integratzeko gainerako neurrien behar besteko multzoa izango duela, eremu sentikorrari eta/edo etxebizitzari ingurumen inpakturik eragiten ez zaiola bermatzeko nahikoa.

12. neurria (proiektu fasea):

- (Paisaia inpaktuaren prebentzioa): Jardueraren batek Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezi eta Bikainen Katalogoan sartutako eremu bati eragiten dionean, gauzatzeko proiektua Arabako Foru Aldundian paisaiaren arloan eskudun den organoak ezarritako baldintzen pean jarriko da zeinak, kasuan kasu, beharrezkotzat jotzen dituen paisaia babestu eta/edo zuzentzeko neurriak ezarriko baititu.

- (Paisaia inpaktuaren prebentzioa): Eragin dakiekeen lurren ekologia eta paisaia leheneratzeko lanak eraikitze lanekin batera egingo dira, ingurumena leheneratzeko eta instalazioa paisaian integratzeko proiektu baten arabera, zeina lehenago egin beharko baita kasu bakoitzean, besteak beste azpiegituren elkarrikuspenaren analisi bat eta bistako arroken analisi bat jasoz. Paisaiaren azterketa egiteko, "Euskal Autonomia erkidegoan paisaian integratzearen azterlanak egiteko gida" hartuko da erreferentzia gisa.

- (Natura arriskuak prebenitzea eta klima aldaketara egokitzea): Jarduerak proposatzen diren eremuen uholde arriskua aztertuko da. Behar bada, neurri teknikoak eta eraikuntzakoak hartuko dira arriskuak saihestu eta/edo minimizatzeko.

- (Obra hondakinak prebenitu eta kudeatzea): Eraikuntza eta eraispn hondakinak kudeatzeko azterketa eta eraikuntza eta eraispn hondakinak kudeatzeko plana egitea, 112/2012 Dekretuak, eraikuntza- eta eraispn-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko denak, xedatutako betebeharren arabera.

13. neurria (obra fasea: Ingurumeneko jardunbide egokiak obran):

- Obrak egitean intereseko landaretza, historia eta kultura ondarea eta gertuko ur ubideak zaintzea bermatuko da.

- Arboladun eremuetan edo ur ibilguetatik gertukoetan guztiz debekatuta egongo da obra materialak eta soberakinak biltzea eta makineria parteak kokatzea.

- Haizeak eraman ditzakeen hondakinak edukiontzi itxietan biltegitatu beharko dira, ondoko landaretzan eta ingurune naturalean aldaketak ekiditeko.

- Obran ingurumeneko jardunbide egokiak aplikatzea hauetarako: zaratak eta bibrazioek eragindako inpaktuen prebentzioa; zoruaren higadura; airearen kalitatea; hondakinak; material arriskutsuak; hondakin uren isuriak; lurzoru kutsatuak; lan higienea eta segurtasuna; komunitatearen higienea eta segurtasuna; kokalekuaren arrisku orokorrak; gaixotasunen prebentzioa eta trafikoaren segurtasuna. Araudia zorrotz betetzea araututako alderdi guztietan, eta nazioarteko jardunbide egokiak betetzea, arautu gabekoetan. Obra eta eraispn faserako jardunbide egokien bilduma bat daukan bideratzeko agiri gisa, erreferentzia gisa hartu Munduko Bankua Taldeko Nazioarteko Finantza Korporazioaren ingurumen, osasun eta segurtasunari buruzko gida orokorraren 4. kapitulua, edo erreferentziako agiri baliokidea.

14. neurria (ustiapen fasea):

- (Lurzoruaren kalitateari eta lurpeko urari eragitea prebenitzea): Instalazioetako zoruaren hormigoia eremuen kontrola egin beharko da, batez ere garbiguneetan, landa garbiguneetan eta hondakin arriskutsuak biltegitatzeko guneetan.

- (Uraren kalitateari eragitea prebenitzea): Arreta berezia jarri beharko da ingurumenera isuriak egitea prebenitzeko egiturak mantentzeko (atxikitzeko askak, ur eta lixibiatuen kanalizazioak, etab.).

- (Ingurune biotikoari eta paisaiari eragitea prebenitzea): Haizeak eraman ditzakeen hondakinak edukiontzi itxietan biltegitatu beharko dira, ondoko landareetan eta ingurune naturalean aldaketak ekiditeko.

- (Ingurune biotikoari eta paisaiari eragitea prebenitzea): Hondakinak kudeatzeko azpiegituren inguruan jarritako landare estalkia zaindu eta mantentzeko programa bat hartu beharko da, hura errotzea eta betiko ezartzea bermatzeko.

- (Ingurune biotikoari eta paisaiari eragitea prebenitzea): Ustiapen fasean eragindako eremuen paisaian integratzeko egindako jardueren jarraipena egiteko programa bat egingo da. Beharrezkoa izanez gero egokitzat jotzen diren neurri gehigarriak hartuko dira bistako ondorioak minimizatzeko.

- (Inpaktuak oro har prebenitzea): Sektoreko eta hirigintzako araudiak azpiegitura mota bakoitzarentzat ezarritako baldintzak zorrotz betetzea.

- (Inpaktuak oro har prebenitzea): Biohondakinaren eta bioegonkortuaren tratamendua hartzen duten azpiegituren kasu jakinean, kontuan hartu IAEren 39. taulako araudia bete behar dela, aplikatzen zaizkion besteen artean.

- (Osasunarentzako inpaktuak prebenitzea): Laneko arriskuak prebenitzeko araudia zorrotz betetzea. Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalak egindako 597. prebentzio ohar teknikoan adierazitako neurriak, hondakinak tratatzeko konpostaje plantetako arrisku higienikoak prebenitzeari buruzkoak, zorrotz betetzea. Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa.

15. neurria (ondorengo eta ustiapena amaitzeko fasea):

- (Obra hondakinak prebenitu eta kudeatzea): Etorkizuneko erabileran eraikinak eta instalazioak berriz baliatzea sartzen ez bada, azpiegituraren eraispen selektiboko proiektu bat egin, eraikuntza eta eraispen hondakinak kudeatzeko azterketa eta eraikuntza eta eraispen hondakinak kudeatzeko plana sartuz, fase honi ekiteko unean aplikatu beharreko araudiaren arabera.

- (Lurzoruaren eta lurpeko uraren kalitatea). Okupatutako lurzoruaren kalitatea ebaluatu eta, behar bada, erabakitzen diren zuzentzeko neurriak egin, lurzoruaren kalitateari eragin zaiola baietsiz gero.

- (Inpaktuak oro har prebenitzea): Hondakinak isurtzeari buruzko indarreko araudiak eta ingurumen baimen integratuaren baldintzek fase honetarako definitutako zigilatatu, itxi eta mantentzeko neurriak zorrotz aplikatzea.

- (Obrako ingurumeneko jardunbide egokiak): Fase honetan egiten diren obrek prebenitu eta zuzentzeko neurriak bete beharko dituzte, obra faserako definitutako en antzekoak, batez ere obrako ingurumeneko jardunbide egokiak aplikatzeari dagokionez.

- (Inpaktuak oro har prebenitzea): Azpiegiturak okupatutako lurak euren jatorrizko egoerara leheneratzea, edo aurreikusitako ondorengo erabilerara, kasuaren arabera.

Halaber, IAEen neurriak egitearen erantzukizunak, kostu ekonomikoa eta denborako plan-gintza jasotzen dira.

Azkenik, IAEren 6. puntuan jasotako Ingurumen Zaintzako Programa egoki eta proportzionatutzat jotzen da.

5. Ondorioak: berriz definitu edo kendu behar lirakeen planeko jarduerak

Ingurumen Adierazpen Estrategiko honetan jasotzen diren zehaztapenak, 21/2013 Legearen 26. artikuluan adierazten denez, "Arabako Hiri Hondakinaren Prebentziorako eta Kudeaketarako Plana (2017-2030)" agirian sartu beharko dira.

Oro har hartuta, esan beharra dago ez dela planean jasotako jarduketarik kendu beharko, baina, dena dela, plangintza berriko neurri bi berriro definitu beharko da:

1. Hondakinak bildu eta tratatzeko azpiegiturak ingurumenean eta paisaian integratzeko neurriei buruz:

Txosten honen aurreko puntuetan aurreratu denez, IAEk ingurumenean integratzeko neurrien proposamena egoki eta nahikotzat jotzen da. Nolanahi ere, eta planak berak IAE planaren barruan 3. agiri gisa sartzen dela jasotzen badu ere, egokitzen jotzen da IAE jasotako ingurumenean eta paisaian integratzeko neurriak, nahiz neurri horiek gauzatzeko erantzukizunak, kostu ekonomikoa eta denborako plangintza planari berari dagokion 1. agirian hitzez hitz sartzea.

2. Planetik datozen eta Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioko prozesuaren pean dauden proiektuei buruz:

Txosten honen aurreko puntuetan aurreratu denez, IAEren 1.4. puntuan (“Aurreikusitako planaren garapena”) aipatu denez, planaren aplikazioaren ondoriozko proiektuak Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioko prozeduren pean jarri behar dira, izan ebaluazio erraztua nahiz ohikoa. Arestikoa gorabehera, eta egun estatuko nahiz autonomiako ingurumen ebaluazioari buruzko araudia berrikusteko fasean dagoela kontuan hartuz, egokiagotzat jotzen da Ingurumen Azterketa Estrategikoaren atal hori aldatzea eta bertan berriz idaztea plana gauzatzearen ondoriozko zenbait proiektu ingurumen inpaktuaren ebaluazioaren pean egongo direla aurreikusten dela. Nolanahi ere, Ingurumen Azterketa Estrategikoan eta planean bertan jasoko da berariaz aurretik behar besteko epearekin egingo zaizkiola banakako kontsultak ingurumen organoari, plana aplikatzearen ondoriozko proiektu bakoitza ingurumen inpaktuaren ebaluazioaren pean daudenez bereizteko eta, hala badaude, prozedura erraztuaren ala ohikoaren pean dauden.

Horrenbestez, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoak, 40. artikuluan ematen dizkidan eskumenak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Hiri Hondakinen 2017-2030 Prebentziorako eta Kudeaketarako Planaren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa egitea.

Bigarrena. Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, Ingurumen ebaluazioarenak, 25. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorrira, ingurumen adierazpen estrategiko hau ingurumen irizpen erabakigarria izango da, betearazteko neurriei eta baldintzei dagokienez. Lege horren 26. artikulua arabera, sustatzaileak planaren dokumentuan sartu beharko du adierazpenaren edukia.

Hirugarrena. Agindua ematea ingurumen adierazpen estrategiko hau ALHAOn argitaratzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko uztailaren 9a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria
AMAIA BARREDO MARTÍN